

IRUÑA: HIRIA EKOSISTEMA GISARA

1. AURKEZPENA

Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua eta Huarte Arte Garaikideko Zentroa elkarlanean ari dira **Iruña: hiria ekosistema gisara** egonaldi artistikoan.

Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua ingurumen-hezkuntza hirian hedatzearen alde ari da lanean, herritarrei eraldaketarako lanabesak emate aldera. Horretarako erabili dituen ekipamenduetako bat da, hain zuzen, Ingurumen Hezkuntzako Museoa (San Pedroko Monasterio Zaharra, Arrotxapea). Bertan egiten dira, batetik, “Jasangarritasuna lantzen elkarrekin” ikasleei zuzendutako jarduera-kanpaina, eta, bestetik, “Jasangarritasun Eskola”, hiruhileko programazio bat, non jendeari oro har zuzendutako erakusketak, hitzaldiak eta lantegiak egiten diren. Museoa gunere irekia da, eta bertan hala kolektiboek nola eskolek jarduerak egiten ahal dituzte gizarte-ingurumeneko gaiei helduta.

Lankidetzaren horren markoan, egonaldi honen bidez proiektu artistiko bat garatu nahi dute Ingurumen Hezkuntzako Museoaren aldi baterako erakusketa-aretorako, artea izan dadin ingurumenaren berri emateko tresna.

2. XEDEA

Egonaldi honen xedea da proiektu artistiko bat sortzea Ingurumen Hezkuntzako Museoaren erakusketa-materialaren parte izan dadin, Museoaren aldi baterako erakusketen aretoan. Deialdira aurkezten ahalko dira artistak eta jatorri kultural edo artistikoko ikerlariak eta agenteak.

Hona proiektuaren gaia: **“Iruña: hiria ekosistema gisara”**.

Edozein planetatako ekosistema batek ezaugarri dauka barna dabilzkion materia- eta energia-fluxuek osatua egotea. Materia bizidunen eta ingurunearen artean mugitzen da, zirkulu itxi bat osatuz eta etengabe ziklikoki berrituz, eta bitartean energia eguzkitik lortzen da, eta gero eraldatzen da.

Hiria ekosistema bat da, etengabe ari baitira elkartrukatzeko baliabideak, energia, hondakinak eta informazioa. Ekosistema natural batetik aldentzen da, baina, ez baitauka ez ziklo itxiko metabolismorik ez energia-iturri agortezinik.

Hondakinak dira horren adibide garbia. Ekosistema natural batean, ez dago hondakin-kontzepturik berez, bizidun batek sortutako hondakina beste batentzako baliabidea baita (zuhaitz batetik erortzen den hosto bat, denborarekin batera, zorua elikatzen duen materia organiko bilakatuko da). Funtzionamendua ziklikoa da. Hirian, baina, baliabideak erabilia hondakinak sortzen dira, eta horietako gehienak ez dira erabiltzen eta lurpean amaitzen dute zabortegi batean. Hau da, funtzionamendua lineala da.

Hiria, horrenbestez, beste ekosistemen menpean da, hala nola landa-ingurunearen pean baliabideak eskuratzeko eta hiriaren funtzionamendua ahalbidetzen duen energia eskuratzeko, eta, halaber, hiriaren funtzionamendua zuzenean eragiten du besteetan.

Hala eta guztiz, hiriak gaitasun handia dauka aldaketetarako, eta alda daiteke ekosistema natural baten gero eta antz handiagoa izateko. Izan ere, ekonomia zirkularra sustatzeak hondakinen erabilera bezainbatean, garraio publikoaren eta bizikletaren alde apustu egiteak garraiobide gisara eta baratzeak hirian bultzatzeak aldaketak sortzen dituzte, eta horri esker menpekotasun gutxiagoko hiri osasungarriagoa ari gara lortzen, hiriko biztanleentzat eta haien ingurunearentzat. Eta horretan funtsezkoa da herritarren zereginak.

Proiektu artistikoak gogoetarako gonbita izan behar du, herritarrek hausnarketa egin dezaten hiriari buruz eta haien jarduketan bidez Iruña jasangarriago baten aldeko aldaketak sortzeko gaitasunaz.

Nola bizi dugu hiria? Zer nolako harremana dauka hiriak ingurunearekin? Nola egin aitzina gero eta menpekotasun gutxiagoko hirirantz? Zein da herritarren zeregina? Zer harreman dago hiriaren eta landa-ingurunearen artean?

3. HELBURUAK

- Aldatzeko gaitasuna daukan menpeko ekosistema gisako ideia helaraztea hiriari buruz.
- Herritarrak gogoetara bultzatzea proiektuaren bidez.
- Herritarrek aldaketak sortzeko duten gaitasuna azpimarratzea.
- Artea erabiltzea ingurumenarekin komunikatzeko tresnatzat.

4. PROIEKTUAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

- Proiektu artistikoa diseinatuko da erakusgai egonen den gune fisikoaren ezaugarrien arabera (zehaztapenak atxiki doaz l. eranskinean).
- Artelanak bidea emanen du erraz jarri, kendu eta gordetzeko, eta iraun eginen du denboran zehar. Guztiz analogikoa izanen da.
- Obra artistikoaren parte bat behintzat diseinatuko da hormetan zirga sistema bidez erakusgai jartzeko moduan. Gainerakoa zoruaren gainean jartzen ahalko da.

5. HAUTAGAIK

Deialdietan parte hartzen ahalko dute oinarriak argitaratzen diren unean Nafarroan bizi edo nafar diren artista guztiek. Banaka edo taldeka aurkez daitezke deialdira.

6. HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Hona hemen hautatzeko irizpideak:

- Proiektuaren kalitate artistikoa.
- Berrikuntza eta originaltasuna.
- Egokitzapen-maila proposatutako gaiari eta erakusketa-guneari (zehaztapenak l. eranskinean).
- Egokitzapen-maila jarritako helburuei eta proiektuaren baldintza teknikoei.
- Proiektua egingarria izatea baliabide ekonomikoei eta egutegiari dagokienez.
- Ikerlana zuzentzen duen pertsonaren eskarmentua/kualifikazioa.

Bete beharreko baldintza ez bada ere, positiboki baloratuko dira material berrerabiliez baliatzen diren proiektuak.

7. DIRU-ZUZKIDURA EGONALDIRAKO

- 2.500 € (BEZa barne) proiektua ekoizteko.
- 2.750 € (BEZa barne), diru-sariak eta erakusketa-eskubideen lagapena ordaintzeko. Ordainketa faktura elektronikoen prozedura bidez egingen da.
- Lan egiteko espazioa, Huarte Zentroan, barne harturik bertako baliabide teknikoak eta teknologikoak.
- Huarte Zentroko ekipoaren zein Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren jarraipena eta aholkularitza.

8. EGONALDIAREN IRAUPENA

Egonaldiak 6 eta 8 aste bitarte iraunen du, eta espazio bat, testuingurua eta denbora eskainiko ditu proiektu artistikoa garatzeko. Egonaldia 2019ko uztaila eta iraila bitarteko denboran egingen da. Proiektua irailean aurkeztuko da eta 2019ko urrian inauguratuko da, Ingurumen Hezkuntzako Museon.

9. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Izena emateko epea **apirilaren 1etik ekainaren 1era** egonen da irekita. Deialdiaren gaineko ebazpena hilabeteko epean jakinaraziko zaie parte-hartzaileei, deialdia ixten den unetik kontatuta.

Izangaiek astebeteko epean berretsi behar dute parte hartuko dutela, jakinarazpena jaso eta hortik aitzina. Jakinarazpen hori jaso ezean edo hautatutako pertsonak uko egiten badio hautagaitzari, puntuaziorik altuena duen hurrengo pertsonari deituko zaio, eta horrela ondoz ondo.

Eskabideak educacionambiental@pamplona.es helbidera igorri behar dira, aurrez II. Eranskinaren formularioa betez eta dossier bat atxikiz honako agiri hauekin:

- Egonaldian garatu beharreko proiektuaren hasierako ideia.
- Proiektua eta egonaldia egiteko motibazioa.
- Aurretiazko lanen irudiak edota proposamenarekin zerikusia dutenak, proiektua errazago ulertzeko (bideoak badira, estekak jarri).
- Gutxi gorabeherako egutegia.
- Ekoizpen-gastuen aurrekontua (2.500 € bitarte, zergak barne).

Dossier dokumentu bakar batean txertatu beharko da, PDF formatuan. Artxiboaren izenak honako hau izan behar du: `izena_abizena_ekosistemahiria`

Behin egonaldia onartuta, hautatua izan den pertsonaren datuak argitara emanen dira Ingurumen Hezkuntzaren udal-webgunean (www.educacionambiental.pamplona.es).

10. HAUTAPEN BATZORDEA

Hautapen-batzordea honako hauek osatuko dute:

1. Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako lantalderen koordinatzailea.
2. Iruñeko Udaleko Hiri Ekologiako Alorreko zuzendari teknikoa.
3. Huarte Arte Garaikideko Zentroko zuzendaria.

Epaimahaikideek parte-hartzaileen proiektuak baloratuko dituzte, eta gehiengoaz hartuko dituzte erabakiak. Batzordeak bete gabe uzten ahalko du deialdia, uste badu aurkeztutako proiektuetan bakar batek ere ez duela ezaugarri nahikorik biltzen egonaldia egiteko.

11. JABETZA INTELEKTUALA

Hautatutako proiektua, maketak eta dokumentazioa barne, Iruñeko Udalaren jabetzakoa bilakatuko da, eta hark obraren erreproduktzioa egiten ahalko du horretarako egoki jotzen dituen bitartekoak erabiliz, obra hedatzeko lehiaketa bera zabaltzeari begira.

Parte-hartzaileak arduratuko dira beren obren gainean ez egoteko hirugarrenen eskubiderik.

Lagapena bakarrik Iruñeko Udalarentzat izateak berekin ekarriko du Udalak eskubide horiek guztiz gauzagarri izatea, merkataritzakoa barne, osorik edo parte batez lagatzea edo baimentzea posible delarik, mugarik gabe, bai eta obra horiek geroan kultura-, arte- edo publizitate-xedeetarako erabiltzea ere, betiere egilearen izena aipatuta eta bat etorrita, kasu orotan, Jabetza Intelektualari buruzko Legeak xedatzen duenarekin.

Pertsona fisikoen edo aurrez eginga dauden obren erreproduktzioen irudiak jasota dituzten obren kasuan, parte-hartzailearen ardura izanen da beharrezko baimenak eta lagapenak eskuratzea, hala beren irudi-eskubideak ukituak izan diren pertsonenak nola lehiaketara aurkeztutako obran erreproduktziorik agertzen diren aurretiazko obrei dagokien jabetza intelektualeko eskubideen titularrenak.

Egileak erantzunen du Iruñeko Udalaren aurrean aurkeztutako proiektuen egiletzaz eta originaltasunaz bezainbatean. Udalak ulertzen du parte-hartzaileak badituela beretzat egile- eta irudi-eskubideak, hortaz salbuetsita

geratzen da egileak betebeharrorik ez betetzeagatik hirugarrenekin eduki ditzakeen ekintza, erreklamazio edo gatazken ondorioz sor daitekeen erantzukizun orotatik.

Proiektu artistikoa Iruñeko Udalaren ondarearen parte izanen da, ezertan eragotzi gabe egilearen jabetza intelektual eta artistikoari buruzko eskubideak.

12. DATUEN BABESA

Tratamenduaren arduraduna: Iruñeko Udala (protecciondedatos@pamplona.es).

Helburua: Datuak deialdia kudeatzeko erabiliko dira, eta izangaia hautatua izanez gero, harekin harremanetan jartzeko eta egonaldi artistikoa kudeatzeko.

Legitimazioa: Eskaera aurkeztuta emandako baimena.

Kontserbazio-epeak: Datuak zertarako bildu diren eta helburu hori betetzeko behar den bitartean kontserbatuko dira, eta biltegitratuko dira Udalari haien tratamendutik etor dakioken erantzukizunik eduki bitartean.

Halaber, bete beharko dira Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako kontserbazio-arauak.

Datuen hartzaileak:

- Parte-hartzaileen datuak Huarte Arte Garaikideko Zentroari jakinaraziko zaizkio, harekin hitzarmen bat sinatu eta Udalarekin batera arituko baita deialdia ebatztean.
- Egonaldia egiteko hautatzen den pertsonaren datuak Udalaren webgunean argitaratuko dira.
- Halaber, horiek jakinaraziko dira indarra duten legeak betez.

Eskubideak gauzatzea: aukera duzu datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta kontra egiteko eskubideez baliatzeko, Iruñeko Udalera joaz, zure nortasuna egiaztatzen duen agiria aurkeztuta. Halaber, jakitera ematen dizugu erreklamazio bat egin dezakezula kontrol-agintaritzako eskumena duen Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean (Jorge Juan k., 6, 28001, Madril) idazki bat aurkeztuta edo egoitza elektronikoaren bidez (agpd.es).

13. OINARRIAK ONARTZEA

Parte-hartzaileek deialdira aurkezte hutsarekin onartu egiten dituzte oinarriok.

14. HARREMANETARAKO

Ingurumen-hezkuntzako lantaldea

educacionambiental@pamplona.es

Tel.: 948420984

www.educacionambiental.pamplona.es

I. ERANSKINA


Aldi-baterako erakusketa-aretoa Ingurumen Hezkuntzako Museoaren areto nagusian dago (San Pedroko monasterio zaharra), eta 110 metro koadro da luze-zabal. Hiru hormek zirga-sistema bat daukate horma gainean materialak paratzeko. Argiztapen finkoa dauka sabaian, ezin dena erregulatu.







Hitzaldi-aretoa berde koloreko atondoan da.





II. ERANSKINA

Iruñean, 2019ko aren(e)an

Datu pertsonalak:

Lehen abizena: Bigarren abizena:

Izena: NAN:

Jaiotze-data: Lekua:

Helbidea: (kalea, zenbakia, solairua):

Herria: PK: Probintzia:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Adierazpena:

Gaitasuna dut Administrazioarekin kontratatzeko, jarduteko gaitasun osoa daukat eta kaudimen teknikoa zein profesionala egiaztatzen dut, eta ez naute ukitzen Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 18. artikulua aurreikusten dituen kontratazio-debekuek, ez eta Foru Lege beraren 20. artikulua aurreikusten dituen bateraezintasunek ere.

Eskatzailearen sinadura